Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea
BILBOKO HEZKUNTZA FAKULTATEA
FACULTAD DE EDUCACIÓN DE BILBAO

**Gradu Amaierako Lana**

**LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA**

**2019/2020 ikasturtea**

# UMOREA HAUR LITERATURAKO ALBUM POSTMODERNOAN

IRAKURZALETASUNA SUSTATZEKO IRAKASLEENTZAKO IRAKURKETA GIDA

**Egilea: Ane Gantxegi Fernández**

**Zuzendaria: Jon Kortazar**

**Leioan, 2020ko maiatzaren 26an**

# AURKIBIDEA


Sarrera........ 3.or.

1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: kontzeptuak argitzen........ 4.or.

  1.1. Umorezko albuma: Lehen Hezkuntzan irakurzaletasuna sustatzeko tresna. 4.or.

  1.2. Zerk bihurtzen du testu bat barregarri haurrentzako? Umorearen nondik norakoak........ 5.or.

    1.2.1. Zer da umorea? ........ 5.or.

    1.2.2. Zertaz egiten dute barre haurrek? ........ 5.or.

    1.2.3. Zer dago, beraz, Haur Literaturako testu barregarrien atzean? ........ 7.or.

  1.3. Umorea Haur Literatura postmodernoan........ 8.or.

    1.3.1. Haur Literatura postmodernoa........ 8.or.

    1.3.2. Umorea Haur Literatura postmodernoan........ 8.or.

  1.4. Umorea Haur Literaturako album postmodernoan........ 10.or.

    1.4.1.Zer da albuma? ........ 10.or.

    1.4.2. Umorea Haur Literaturako album postmodernoan........ 11.or.

2. Metodologia........ 13.or.

3. Lanaren garapena........ 14.or.

    3.1. Zergatik LHko irakasleentzako umorezko albumen irakurketa gida?.. 14.or.

    3.2. Produktuaren diseinua........ 15.or.

    3.3. Garapen fasea: Lehen Hezkuntzako irakasleentzako irakurketa gida.. 16.or.

4. Ondorioak........ 21.or.

5. Erreferentzia bibliografikoak........ 22.or.

6. Eranskinak........ 27.or.

  1.Eranskina........ 27.or.

  2.Eranskina........ 32.or.

# UMOREA HAUR LITERATURAKO ALBUM POSTMODERNOAN

## Irakurzaletasuna sustatzeko irakasleentzako irakurketa gida

**Ane Gantxegi Fernández**

UPV/EHU

Umoreak Haur Literaturako album postmodernoan duen presentzia aztertu ostean, Gradu Amaierako Lan honetan Lehen Hezkuntzako irakasleei bideratutako irakurketa gida bat eskaintzen da. Bertan, sei eta hamabi urte bitarteko ikasleei bideratutako umorezko album postmodernoak batu izan dira eta horietako batzuk gelan nola landu zehaztu. Gida hau sortzeko, funtsezkoa izan da umoreak Haur Literatura postmodernoan zein album postmodernoan duen presentzia ikertzea. Azterketa bibliografiko horretan oinarrituta, zazpi kategoriatan banatu izan da irakurketa gida: metafikzioa, zentzugabekeria, ironia, polifonia, gehiegikeria, testuartekotasuna eta kontraesana.

*Haur Literatura, albuma, postmodernoa, umorea, gida*

Tras analizar la presencia del humor en el álbum postmoderno de Literatura Infantil, en este Trabajo de Fin de Grado se ofrece una guía de lectura dirigida al profesorado de Educación Primaria. En ella se han recopilado álbumes de humor postmodernos dirigidos al alumnado de entre seis y doce años y propuesto ciertas actividades para trabajar algunos. Para ello ha sido fundamental analizar la presencia del humor tanto en la Literatura Infantil postmoderna como en el álbum postmoderno. En base a este análisis bibliográfico, la guía se ha dividido en siete categorías: metaficción, sinsentido, ironía, polifonía, exageración, intertextualidad y contradicción.

*Literatura Infantil, álbum, postmoderno, humor, guía*

After analysing the presence of humour in postmodern picturebooks of children's literature, the present work offers a reading guide for primary school teachers. It has compiled humorous postmodern picturebooks aimed at students aged between six and twelve and proposed certain activities to carry out with some of them. To do so, it has been essential to analyse the presence of humour in both postmodern Children's Literature and postmodern picturebooks. Based on this bibliographic research, the guide has been divided into seven categories: metafiction, nonsense, irony, polyphony, exaggeration, intertextuality and contradiction.

*Children's Literature, picturebook, postmodern, humour, guide*

## Sarrera

Jarraian aurkezten den Gradu Amaierako Lanaren helburua Lehen Hezkuntzako irakasleentzat irakurketa gida bat eskaintzea da. Irakurketak berak irakurtzen ikasten laguntzen duela kontuan izanik, ezinbestekoa da gelara eramandako liburuak irakurtzeak zer ikaskuntza eman ditzakeen jakitea (Fernández de Gamboa, 2018; Colomer, 1998).

Gida honen xedea, beraz, irakasleei ikasgelan landu beharreko irakurgaien aukeraketa erraztea da. Izan ere, gaur egun liburu ugari argitaratzen dira eta merkatuaren produkzio-erritmo azkar horrek agerian uzten du bitartekarien lana ezinbestekoa dela (Fernández de Gamboa, 2018).

Zehazki, Haur Literaturako umorezko album postmodernoen gida sortzea dut helburu. Umorea egunerokotasunean ohikoa izan arren, hezkuntza arloan ezer gutxi jorratzen den gaia da. Era berean, haurrentzako album postmoderno hauek egindako umorearen erabilera ezezaguna bezain berezia da eta adituek irakurketa sustatzeko tresnatzat gomendatzen dituzte.

Helburu horrekin, esparru teorikoan, gai honi heltzeko oinarriak ezartzen dira, eta honako alderdi hauek jorratzen dira. Alde batetik, irakurzaletasunaren garrantzia azpimarratu, umoreari buruzko nondik norakoak zehaztu eta Haur Literaturan duen presentzia nabarmentzen da. Ildo beretik jarraituz, Haur Literatura postmodernoaren ezaugarriak adierazi ostean, umorea Haur Literatura postmodernoan agertzeko modua ikertzen da. Era berean, albuma definizio zaileko kultura-produktu postmoderno gisa aztertu eta hauetan umorea nola agertzen den aurkezten da.

Marko metodologikoan, hori guztia oinarri izanik, Haur Literaturako umorezko album postmodernoen irakurketa gida sortu da. Horretarako, GRETEL, Galtzagorri eta Canal Lector entitateek gomendaturiko albumak aukeratu eta EAEko udal liburutegietan hauen eskuragarritasuna aztertu da. Gidan, albumak umorea sortzeko estrategia nagusien arabera taldekatu dira eta album zehatz batzuk klasean nola landu proposatzen da. Azkenik, ikerketaren ondorioak aurkezten dira, eta ateak zabalik uzten dira horrelako albumetan umoreari buruzko ikerketa berriak egiteko.

## 1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: kontzeptuak argitzen

Hasteko, umoreak Haur Literaturako album postmodernoetan duen presentzia aztertuko da. Arestian azaldu den eran, umorea hezkuntzan gutxi jorratzen den gaia da eta album postmoderno mota honetan duen presentzia azpimarragarria da, Lehen Hezkuntzako ikasleen irakurzaletasuna sustatzeko tresna interesgarria bihurtuz. Marko teorikoan, beraz, irakurzaletasunaren garrantzia nabarmenduko da, umorearen nondik norakoak aztertu eta Haur Literaturan eta album postmodernoetan nola agertzen den ikertu.

### 1.1. Umorezko albuma: Lehen Hezkuntzan irakurzaletasuna sustatzeko tresna

Irakurketak garrantzi handia du haurren garapen eta heltze prozesuan. Izan ere, haurren garapen kognitiboa, afektiboa eta soziala bultzatzen ditu (Cano, 2019). Hala eta guztiz ere, estatu mailan, haurren irakurketa-ohiturak neurtzeko inkesta anitz egin dira, hauen irakurtzeko usadio txikia agerian utziz (Manresa eta Reyes, 2014). Nola lor dezakete beraz, Lehen Hezkuntzako irakasleek, haurrak irakurketara animatzea?

Heziketa literarioaren bitartez, irakasleek ikasleen fantasiaren eta sormenaren mundua esnatzeko aukera dute (Rivera eta Castillo, 2005). Irakurlearen inplikazioa ezinbestekoa da literatura gaitasunean aurrera egiteko eta irakurtzean sentitutako plazerarekin dago loturik (Colomer, 1996a). Beraz, irakasleek ikasleentzat interesgarriak diren irakurgaiak bilatu behar dituzte bai eduki zein formatu aldetik (Colomer, 1996b). Irakurtzea zerbait atsegintzat ikusiz gero, epe ertain luzera ohitura bihurtu liteke (Vargas, 2001).

Alde horretatik, albumak haurren irakurzaletasuna sustatzen lagun dezake (Manresa eta Reyes, 2014). Izan ere, testuaren eta irudien arteko komunztadura dela eta, bi hizkuntzak elkar komunikatzen dira (Vásquez, 2014). Ilustrazioak handiak izan ohi dira eta testuak laburrak (Sáez, 2016). "Leer es asociar" (Duran, 2008: 191) ideian oinarrituz, irudien eta testuaren arteko elkarrekintza horrek irakurketa prozesua errazten du, irakurtzen ikasteko eta hau sustatzeko aldamio egokia eskainiz (Colomer, 2001).

Irudi eta testuaren arteko erlazio horretatik abiatuta, albumetan umorearen presentzia ohikoa da (Sardi, 2013), haurrei mezu duala helaraziz: irakurtzen goza daitekeela, eta ikastea dibertigarria dela, alegia (Klein, 1992). Hots, barrea eta jolasa sustatzen dituzten albumak haurren irakurzaletasuna sustatzeko garrantzi handiko baliabideak dira (Chiuminatto, 2011).

## 1.2. Zerk bihurtzen du testu bat barregarri haurrentzako? Umorearen nondik norakoak

Eguneroko bizitzan, haurrek umore forma asko aurkitzen dituzte egoera anitzetan. Haatik, egoera umoretsuen eraginpean egon arren, gutxitan pentsatzen dute zergatik diren gauzak dibertigarriak (Serafini eta Coles, 2015). Hau dela eta, jarraian, zehazki umorea zer den ikertuko da eta haurrek zertaz egiten duten barre aztertu, Haur Literaturako testuetan erabilitako umorearen nolakotasunak identifikatzeko helburu.

### 1.2.1. Zer da umorea?

Umorea gizakiaren gaitasun paregabea da, pertsona bati barre edo irribarre eginarazten eta, ondorioz, ondo sentiarazten dion nolakotasuna (Mallan, 1993), kultura guztietan presente dagoena (Carbelo eta Jáuregui, 2006). Umore-sena unibertsala da, modu ezberdinetan aurkeztu daiteke (Guerrero, 2008) eta gizakiaren irudimenaren heinarekin bat dator. Adimena eta ergelkeria, bihurrikeria eta kontserbadorismoa, tolerantzia eta intolerantzia, denek aurki dezakete bere espresioa umorean (Billig, 2005).

Umorea ez da moralki neutroa eta gizarte batetik bestera aldatu egiten da (Pescetti, 2005). Ez dago objektiboki umoretsua den ezer (Guerrero, 2013), ez txantxarik, ez eszenarik, ezta anekdotarik ere. Kultura berdineko pertsonek ere ez dute umore bera partekatzen. Gizartea aldatzen den heinean aldatzen da, baita pertsonak zahartu ahala ere (Mallan, 1993). Halaber, baliteke pertsona batek zerbait une oro barregarria dela ez aurkitzea (Billig, 2005), testuinguru eta une batetik bestera aldatuz (Mallan, 1993).

Umorearen berezko anbiguotasun eta zehaztugabetasun horrek lortzen du barrea eragitea (Saad, 2012), literatura umorea lantzeko eremu aproposa bihurtuz, bikoiztasun, mugagabetasun eta pluraltasun hori idazkietan islatu baitaiteke (Parreira, 1994).

### 1.2.2. Zertaz egiten dute barre haurrek?

Batzuetan badirudi adin mugarik gabeko erakargarritasun komiko unibertsala duten umore forma batzuk daudela (Mallan, 1993). Haatik, haurrek eta helduek preferentzia komiko ezberdinak dituzten eran, adin bereko haurrek ez dute gauza berei buruz barre egiten, gaitasun intelektualak eta material komikoaren sofistikazio mailak ere eragina

baitute (Guerrero, 2013). Oro har, ordea, edozein adinetako haurrek beraien oinarrizko kezkak jorratzen dituzten materialetan umorea aurkitzeko joera dute (Mallan, 1993).

Alde batetik, bost urteko haurrek, zentzugabekeria, eskatologia (Ruiz, 2005) eta hitz-jolasak (Cancelas, 2005) aurkitzen dituzte barregarri, erritmo jostagarridun kantak, esaterako (Mallan, 1993). Umorea fisikoki nolabait irudikatuta egon behar da. Horrek azal dezake karikatura estereotipatuen (Cancelas, 2005), slapstickaren (Richards, 2014) eta tamaina handiko pertsonaien erakargarritasuna (Cross, 2011). Haurtzaroan, umorea ondo pasatzeko helburu bakarrarekin praktikatzen den jolasa da (Cancelas, 2005).

Sei urteko haurrek bisualak diren rol-aldaketak, inkongruentziak (Ruiz, 2005) eta gehiegikeriak (Cancelas, 2005) atsegin dituzte, eta haien inkongruentzia kontzeptuaren pertzepzioa zabalagoa da (Mallan, 1993). Azken hori, gertaera bati buruz dauden itxaropenekiko desadostasunetik sortzen den harridurarekin lotzen da (Timofeeva, 2014). Sinpleak diren umorezko baliabide horiek konplexuagoak bihurtzen hasten dira (Ruiz, 2005) eta umoreak fisikoki irudikatuta egoten dihardu (Cross, 2011).

Haurrak hazi ahala, dibertigarria denari buruz dituzten pertzepzioak zabaldu eta egoera komiko gehiago preziatzeko gai bihurtzen dira (Mallan, 1993). Beraz, zazpi eta zortzi urte arteko haurrei, orain arte izendatutakoaz gain, parodiek ere barrea eragiten dizkiete (Ruiz, 2005). Hizkuntza estruktura sofistikatuagoak ulertzen dituztenez, asmakizunak eta txantxak kontatzeko zein hauetaz gozatzeko gai dira (Cross, 2011).

Zortzi urtetik aurrera, igartzen hasten dira asmakizunek bi erantzun posible dituztela: zuzena -ezikusiarena egin behar dena- eta broma (Mallan, 1993). Hizkuntza menderatzea funtsezkoa da umore-forma abstraktu eta sofistikatuagoak ulertzeko eta orduan hasten dira txisteen eta hitz-jokoen esanahi bikoitzak ulertzen (Cross, 2011).

Bederatzi eta hamar urteko haurren artean hitz jokoak, buruargitasuna eta satira umore iturri garrantzitsuak dira (Cross, 2011). Bestetik, hamaika eta hamabi urte arteko haurrek aberatsagoa eta konplexuagoa den umorea nahiago dute, kritika sozial gogorragoak, lotsagabeagoak eta zuzenagoak egindako gizarte-satirak, alegia (Ruiz, 2005). Ezusteko zaplaztekoak, indarkeria, parodia, gehiegikeria zakarrak eta filmetan maiz gertatzen diren auto jazarpen eta istripu basatiak, barregarriak iruditzen zaizkie, errealitatea eta fantasia ondo bereizteko gai direlako (Cancelas, 2005). Hala eta guztiz ere, mugak daudela azpimarratu behar da, haurren izaerarekin zein indarkeriaren nolakotasunarekin bat datozenak (Mallan, 1993).

### 1.2.3. Zer dago, beraz, Haur Literaturako testu barregarrien atzean?

Umorea beti egon da presente Haur Literaturan (Rivera eta Castillo, 2005). Umorezko testuak deskodetu eta interpretatzen dira, erantzuna imintzioa zein barre-algara izanik (Guerrero, 2013). Haatik, nola erabiltzen dute umorea idazleek trama garatzeko, pertsonaiak deskribatzeko edo irakurlearengan erantzun bat eragiteko?

Haur Literaturako idazleen intentzio satirikoa hartzaile gazteenekin partekatzen duten konbentzio sozial batetik abiatzen da (Morón, 2010), umore orok eskatzen baitu gauza jakin batzuk konbentzionalki barregarriak direla adostea (Guerrero, 2013). Beraz, idazleek aldez aurretik badakite zerk eragiten dien barrea haurrei (Mallan, 1993).

Hau horrela izanik, alde batetik, pertsonaia umoretsuez baliatzen dira idazleak (Harrison, 1986). Horretarako, giza ezaugarriak eta ahuleziak puzten dituzte. Erabilitako errekurtsoen artean, autoritate figurei iseka egitea eta pertsonaia nagusiaren muturreko xalotasuna, ezjakintasuna, baldartasuna eta inozotasuna dira erabilienak (Mallan, 1993).

Ezinbestekoa da gehiegikeria hauek sortutako umorea ulertzeko haurrek pertsonaia satirizatzen duen pertsona mota aldez aurretik ezagutzea, maisua, dendaria zein polizia, esaterako. Bestalde, idazleentzat erronka handia da irakurleak beraien burua identifika dezaketenekin pertsonaiei barre egitera erakartzea. Beraz, askotan hobe da irakurleak pertsonaia baino pixka bat zaharragoak izatea, horrek pertsonaiaren ezjakintasunaz erosoago barre egiteko aukera ematen baitie (Mallan, 1993).

Aipatutakoaz gain, Haur Literaturako idazkietan, egoerazko umoreak, oro har, inkongruentzia sortzen du absurdoaren elementuak egoera konbentzionaletan sartzean (Mallan, 1993). Gertakari zehatz bat komikotzat hartzen da komikoa ez den errealitate baten barruan inplizituki agertzerakoan (Guerrero, 2013). Idazleek, beraz, zentzugabekotasunak, inkongruentziak (Martín, 2004), bat-bateko eraldaketak, kaosa eta funsgabekeriak txertatzen dituzte egoera konbentzionaletan (Mallan, 1993).

Bestalde, pertsonaietan eta egoeretan ez ezik, diskurtsoan ere estrategia umoretsuez baliatzen dira Haur Literaturako idazleak, hizkuntzarekin jolastuz (Mury eta Gonçalves, 2007). Joko hauek forma asko har ditzakete, zentzurik gabe hitz egitetik, forma burutsu eta trebeak erabiltzeraino. Gainera, hitz arraro eta anbiguoen, zein soinuen, erritmoen eta metaforen erabilera oso ohikoa da (Mallan, 1993).

### 1.3. Umorea Haur Literatura postmodernoan

Umorea zer den ikertzea eta haurrei barre eragiten diena aztertzea ezinbestekoa izan da, jarraian, Haur Literatura postmodernoan sakontzeko helburu. Beraz, hasteko, Haur Literatura postmodernoaren ezaugarri nagusiak ikertu dira eta, geroago, umoreak literatura mota zehatz honetan duen presentzia aztertu da.

#### 1.3.1. Haur Literatura postmodernoa

XX. mendearen erdialdean, aldaketa ideologiko sakona suposatu zuen aro berri bat hasi zen, literatura arloan, aldaketa nabarmenak ekarri zituelarik (Cahoone, 2000). Orduko idazleak, balio moral eta metanarratiba handi eta unibertsalekin ez zeuden konforme (Kortazar, 2007). Izan ere, haien ikuspegitik, errealitatea laua eta egonkorra izateari utzi eta, heterogeneoa eta aldakorra bihurtu zen (Allan, 2018). Ondorioz, ezegonkortasun eta heterogeneotasun hori, haien idazkietan adierazi zuten (Bermúdez, 1996).

Zehazkiago esateko, Haur Literaturan fokua jarriz, Laura Guerrerok (2013) adierazten duen eran, idatzietan helburu zehatzik gabeko esperimentu formalak onartzen hasi ziren, axolagabekeria eta jolasa baitziren nagusi (Kortazar, 2007). Gainera, ordura arte ezarritako arau literarioak hausteko marjina zabaldu zen (Kortazar, 2007). Hots, Haur Literatura postmodernoa antiautoritariotzat jo daiteke, momentura arte ezarritako arau formalak hausten baitzituen (Colomer, 2010).

Arauen haustura horren ondorioz, obretan pluralismo estilistikoa nabarmendu zen (Kortazar, 2007), estilo bakar eta nagusirik ez zegoela (Kortazar, 2012), eta literatura postmodernoa eklektikoa bihurtu zen (Eagleton, 1996). Pluraltasun hori, teknika estilistiko ezberdinen elkarketaren bitartez lortzen zuten Haur Literaturako idazle postmodernoek: estrategia subertsiboen bidez, alegia (Guerrero, 2013).

Horiek esplizituki irakurritakoari buruzko ziurgabetasuna sortarazten zuten irakurlearengan (Guerrero, 2008). Hots, testuan esplizituki esaten ez zenarekin lotuta zeuden (Guerrero, 2013). Testuaren konfigurazioaren maila guztietan ikus zitezkeen, baina idazki batetik bestera, idazleek egindako estrategien erabilera desberdina izan zen.

#### 1.3.2. Umorea Haur Literatura postmodernoan

Azpimarratu beharra dago, arestian izendaturiko estrategia subertsiboen erabileraren helburu ohikoena, errealitatea era umoretsuan deskribatzea eta kritikatzea zela

(Colomer, 2010). Jarraian azalduko diren jolas linguistikoen bitartez, errealitatearen erlatibotasuna eta ezegonkortasuna agerian utzi nahi zuten Haur Literaturako idazle postmodernoek (Guerrero, 2008). Horrela, Haur Literatura postmodernoa hainbeste ezaugarritzen duen umore korrosiboa, zalantzazkoa eta ironikoa sortzen zuten, ziurtasun guztien ezegonkortzailea zena (Guerrero, 2013). Umoredun mezuak sortzeko erabilitako subertsioa, hurrengo estrategien bitartez adierazi zen idazki postmodernoetan:

Alde batetik, *anakronismoei* esker, denborazko nozioekin jolasten zuten idazleek (Kortazar, 2012), bai distortsio txiki zein inkoherentzia nabarmenen bitartez (Fernández, 2004). Bestalde, *polifonia* testualaz baliatzen ziren (Kortazar, 2007), pertsonaien ahots, kontzientzia, ikuspuntu eta hizkuntza-erregistro anitzen elkarrekintza adieraziz (Pedraza, 2010). Bestalde, diskurtso-erregistro ezberdinen erabileran ere ager daiteke polifonia: gutunak, albisteak, iragarkiak zein asmakizunak istorioetan gehitzen zituztenean, alegia (Guerrero, 2013).

Anakronismoaz eta polifoniaz gain, Jon Kortazaren hitzetan (2007), *testuartekotasuna* tresna oso erabilia izan zen lehenago izendatutako pluraltasun testual hori lortzeko, bai aipu esplizituen medioz zein zeharkako aipamen ezkutuen bidez (Padrino, 2002). Testuartekotasunaren bitartez, beste idazleen testu zatiez baliatuz, *parodia*, *satira*, *pastiche* eta *Kitsch* testuak sortzen zituzten idazleek, konbentzionaltasuna, estereotipoak, zoriontasuna, giza portaeraren bizioak zein errealitatea kritikatzeko, eta azken honen gabeziak agerian uzteko helburu (Tang, 2019).

*Hiperboleez* ere baliatu ziren Haur Literaturako idazle postmodernoak: ekintzen, objektuen, pertsonen, kantitateen, distantzien, edo tamainen nolakotasunak neurriz kanpo aurkeztea, alegia (Vallejos eta Palmucci, 2011). Gainera, haurrentzako idazki postmodernoetan *kontraesana* nagusitzen zen askotan (Guerrero, 2013). Horretarako, *zentzugabekeria* eta *nonsense* bezalako estrategiak erabiltzen zituzten (Guerrero, 2008), koherentziarik eta korrespondentziarik gabeko idazkiak sortuz (Pérez, 2016).

Azkenik, *metafikzioa* errealitatea eta fikzioa nahasten zituen estrategia subertsibo garrantzitsua izan zen (Cadena, 2012). Estrategia horren erabilera dela eta, fikzioaren aldamioak agerikoak bihurtzen ziren (Guerrero, 2013). Bestela esanda, fikzioak bere egitura propioez hitz egitean zetzan, hauek agerian utziz eta etengabe "gogoratu fikzioa dela" gogoraraziz (Rodriguez, 1995). Hots, bere eraikuntzari eta, beraz, bere tramankulu izaerari buruzko arreta pizten duen fikzio mota da metafikzioa (Silva-Díaz, 2005).

## 1.4. Umorea Haur Literaturako album postmodernoan

Zehazki umorea zer den eta Haur Literatura postmodernoan nola gorpuzten den aztertu eta gero, umoreak Haur Literaturako album postmodernoetan duen presentzia ikertu da. Horretarako, baina, lehenago albuma zehazki zer den zehaztu da, jarraian, definizio zaileko kultura-produktu postmoderno gisa aztertzeko helburu.

### 1.4.1. Zer da albuma?

Ezer baino lehen, funtsezkoa da azpimarratzea ezin direla liburu ilustratuak albumekin nahasi. Liburu ilustratuetan, irudien funtzioa estetikoa baino ez da. Aldiz, albumetan, irudien eta testuaren arteko interdependentzia zorrotza da (Fernández de Gamboa, 2018; Silva-Díaz, 2005), bata ulertzeko bestea kontuan edukitzea ezinbestekoa baita (Orozco, 2009). Hala eta guztiz ere, albumari definizio bat ematea zaila da (Sáez, 2016).

Haatik, zailtasun horrek agerian uzten du arau zehatzik gabeko liburu mota bat dela (Sáez, 2016). Albumak liburu hibridoak, malguak, heterogeneoak, dimentsio anitzekoak (Fernández de Gamboa, 2018), aldakorrak, soilak, laburrak, trinkoak, irakurterrazak (Op de Beeck, 2018) eta kamaleonikoak dira (Lewis, 1995), narratiboa, poetikoa edo kontzeptuala izan daitekeen produktu kultural konplexua (Guerrero, 2013).

Bestalde, ez dago batasun tematikorik, estetikorik ezta formalik ere, baina badira albumen konbentzio bereizgarri batzuk: haurrei zuzenduriko 32 orrialde inguruko liburu ez oso luzeak izan ohi dira (Bosch, 2007). Haietan, gainera, orrialde-bikoitzaren inprimaketa da nagusi eta ilustrazioak handiak eta testuak laburrak dira (Sáez, 2016).

Irudien eta testuen elkarrekintza da albuma gainerako literatura-produktuengandik ezberdintzen dituen ezaugarri nagusietako bat (Silva-Díaz, 2016), albuma bera bezain dinamikoa eta malgua dena (Silva-Díaz, 2003). Bi kodeen konbinazioak bakoitzak bere aldetik izan lezakeena baino eragin handiagoa du (Silva-Díaz, 2005). Haatik, ilustrazioa funtsezkoa bezala testua azpikoa izan daiteke, desagertu ere egin daitekeena, hitzik gabeko albumetan gertatzen den bezala (Bosch, 2007).

Era berean, albuma, irudi-testu interakzioaz haratago, bere paratestuez transmititutako informazio kantitateagatik nabarmentzen da. Zehazki, Karla Fernández de Gamboak (2018) zerrendatzen dituen aspektu formalek albuma gainerako liburuetatik bereizten dute. Hots, albumaren tamaina, forma, gainestalkia, estalkia, estalkipekoa, azala, kontrazala, plegua eta tipografia (Fernández de Gamboa, 2018).

### 1.4.2. Umorea Haur Literaturako album postmodernoan

Albumaren historian zehar izan diren aldaketa sozial eta kulturalek eragina izan dute haren egituraketan (Coats, 2010). Albumaren merkatu garaikidean, gero eta formatu eta genero gehiago sortzen ari dira, hauen artean album postmodernoa dagoelarik. (Kümmerling-Meibauer, 2015). Esperimentazio postmodernoak albumaren egungo karakterizazioan eragina izan du (Silva-Díaz, 2003), hots, dialogismoak, aldiberekotasunak eta etenek (Silva-Díaz, 2005). Hori dela eta, album batzuk ezaugarri postmodernoak dituztela esan genezake (Lewis, 2001).

Esperimentazio postmoderno hori, estrategia subertsiboen bidez egiten da (Guerrero, 2013). Subertsioaren bitartez, Haur Literaturako idazki postmodernoetan gertatzen den eran (Colomer, 2010), album postmodernoetan ere gizartea era umoretsuan deskribatu egiten da eta, bide batez, hau kritikatu. Azken hauetan, umoredun mezuak sortzeko, jarraian adieraziko diren jolas linguistikoak era bisualago batean gorpuzten dira (Silva-Díaz, 2003), irudi eta testuen arteko elkarrekintzan islatzeaz gain, arestian izendaturiko elementu paratestualetan ere adierazten baitira (Fernández de Gamboa, 2018).

Haur Literaturako album postmodernoetan zehar kontatutako gertakarien ordenarekin jolasteak jarraitutasunaren nozioak ezegonkortzen ditu (Beveridge, 2015). *Anakronismoen* bitartez lortutako historiaren irudikapen konbentzionalen galdeketa postmoderno honi, *metafikzio historiografikoa* deritzo (McCallum, 1999). Elementu historikoen eta fikziozkoen nahasketez gain, hirugarren pertsonako kontaketetan eta denborazko- zein narrazio- konbentzioen urraketetan gorpuzten da (Allan, 2018).

Bestalde, ahots, kontzientzia eta ikuspuntu anitzen elkarrekintza (Pedraza, 2010), *metalepsia*, *polifonia* eta *heteroglosiaren* bitartez adierazten da (Allan, 2018). Itxuraz objektiboak diren "egiak" edo "testu-autoritatea" dituen ahots nagusiak baztertzen dituzte. Egile-posizio bakar bat egon ordez, geruza anitzeko narrazioak (Allan, 2018), narrazio etenak (Silva-Díaz, 2005), narratzailearen eta egilearen intrusioak (McCallum, 1999) eta egoera bakarrari buruzko ikuspuntu aldakorrak daude, testuaren "egien" arteko interrelazio dialogikoa ulertzeko baliagarriak direnak. Ondorioz, irakurleen parte hartzea sustatzen dute, irakurketa prozesu aktiboa lortuz (Allan, 2018).

Garrantzizkoa da azpimarratzea, album postmoderno anitzetan, testuaren eta irudien arteko *kontraesanaren* eta *paradoxen* bitartez (Waugh, 2003), errealitatearen bi

ikuspegi desberdin ematen direla, polifonia testuala lortzeko helburu (Nodelman, 1988). Berriz, irakurle gazteenak partaide bihurtzen ditu eta historia eraikitzen edo gertakarien bertsio propioa sortzen laguntzera animatzen ditu (Allan, 2018). Era berean, irudiak eta testua bereizita egon daitezke, *isolaturik*, loturarik ez izan (Van der Linden, 2003). Haatik, egoera bakarrari buruzko ikuspuntu aldakor hauetaz gain, guztiz kontrakoa ere gerta ohi da, *erredundantzia,* alegia (Kümmerling-Meibauer, 1999).

Bestalde, diskurtso-erregistro ezberdinen erabileran ere ager daiteke polifonia. Haur Literatura postmodernoko idazkietan txertatzen ziren gutunak, albisteak, iragarkiak asmakizunak (Guerrero, 2013), anagramak zein txisteak (McCallum, 1999), Haur Literaturako album postmodernoen kasuan, fisikoki gehitzen dira eta paratestuaren parte bihurtzen dira, askotan objektu manipulagarriak direlarik (Vasquez, 2004). Hau *hipertestutzat* jo daiteke (Vasquez, 2004) eta pluraltasun testual horrekin bat datorren beste estrategia subertsibo oso erabilia, besteren hitzaren etengabeko presentzia edo aipamena da, hots, *testuartekotasuna* (Beristáin, 1996).

Albumaren arabera, aipamen hauek irakurleak erraz identifika ditzake edo istorioetako pertsonaiekin batera aurkitu (Fernández de Gamboa, 2018). Testu mota honen aberastasuna, collagearen teknika jokoan jartzen duten irudi iradokitzaileek ematen dute, aldi berean *pastiche*, *Kitsch*, *naïf* eta *oximoron* estetikak eraikitzen dituztenak (Sardi, 2013). Testuartekotasunak hainbat mailatan jarduten du, metafora (Silva-Díaz, 2005) zein aipamen natural eta ezkutu hutsetik, *parodia* estilozko album postmodernoak sortzeraino (Allan, 2018). Honekin batera, beste testu jolas batzuetan ere gorpuzten da testuartekotasuna, *ironian* alegia (Serafini eta Coles, 2015).

Ildo beretik jarraituz, konbentzionaltasunarekin, estereotipoekin eta eskatologiarekin lotuta, eta zakartasuna zein faltsukeria oinarritzat dituzten (Guerrero, 2013; Allan, 2018), *hiperboleak* (Vallejos eta Palmucci, 2011)*, karikaturak, zentzugabekeriak*, *gehiegikeriak, rol-aldaketak*, *inkongruentziak* (Ruiz, 2005) eta *slapsticka* (Richards, 2014) ere estrategia subertsibo oso erabiliak dira. Hizkuntza figuratua (Timofeeva, 2014), lengoaiaren eta irudien erabilera arduragabea eta esaldi zein hitz joko burutsuak, irudi, testu eta paratestuan islatzen dira (Martín, 2004).

Azkenik, arestian azaldutako estrategia subertsiboek, askotan, fikzioaren aldamioak agerikoak bihurtzen dituzte eta horri eraikuntza deitzen zaio (Guerrero, 2013). Era berean, *metafikzioa* gertatzen da. Metafikzio postmodernoa, narratzailearen

autoritatearen aurrean elementu narratibo ezberdinak desafiatzean eta insubordinatzen datza (Silva-Díaz, 2005). Hots, etengabe sortzen dira fikzioaren eta errealitatearen arteko harremanari buruzko galderak (Waugh, 2003).

## 2. Metodologia

Umoreak Haur Literaturako album postmodernoan duen presentzia aztertu ostean, Gradu Amaierako Lan honetan Lehen Hezkuntzako irakasleei bideratutako irakurketa gida bat eskaintzen da. Beraz, helburua bikoitza da: aztergaiaren bilaketa bibliografikoa egitea eta horretan oinarritutako irakurzaletasuna sustatzeko irakurketa gida bat proposatzea. Hala, ikerketa galderak honako hauek izan dira: adituek albuma Lehen Hezkuntzako ikasleen irakurzaletasuna sustatzeko tresnatzat jotzen dute? Zer da umorea? Zertaz egiten dute barre haurrek? Zeintzuk dira Haur Literatura postmodernoaren ezaugarriak? Zer da albuma? Nola aurkezten da umorea Haur Literatura postmodernoan? Eta Haur Literaturako album postmodernoan?

GRALa jorratzeko helburu, hiru fase nagusi eraman ditut aurrera. Hasteko, aztergaiari dagokion bibliografia bilatu eta irakurri dut, hau da, umorea Haur Literaturako album postmodernoan. Horretarako, alde batetik, Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) liburutegira jo dut. Bestetik, Dialnet eta Eric datu-baseetan bilaketa bibliografikoa egin dut. Bestalde, Haur eta Gazte Literaturara zuzendutako Peonza, ANILIJ (Haur eta Gazte Literaturako Ikerketa Urtekaria) eta CLIJ (Haur eta Gazte Literaturako koadernoak) aldizkariez baliatu naiz. Era berean, Literatura Terminoen, Labayru eta Euskaltzaindiaren online hiztegiak funtsezkoak izan dira.

Bigarrenik, irakurketa gida sortzeko, albumen kalitate literarioa bermatuko duten iturrietan Haur Literaturako umorezko album postmodernoak bilatu ditut. Alde batetik, GRETEL, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Haur eta Gazte Literaturaren eta Heziketa Literarioaren Ikerketa Taldeak, "Haur eta Gazte Literaturako Gomendioak" zerrendan gaztelaniazko 46 album gomendatzen ditu. Bestalde, Galtzagorri Elkarteak 2017 eta 2018 urteetako liburu gomendagarrien zerrendetan euskarazko 14 album proposatzen dira. Azkenik, Germán Sánchez Ruipérez-en fundazioaren Canal Lector entitateak, irakurzaletasuna eta alfabetatzea sustatzeko gaztelaniazko beste 70 album.

Behin 1. Eranskinean zerrendatutako Haur Literaturako umorezko album postmoderno gomendatuak izanda, ezinbestekoa izan da Euskal Autonomia Erkidegoko

udal liburutegietan haietatik zeintzuk dauden eskuragarri ikertzea. Izan ere, irakasleek eta familiek gidan zerrendatuko diren albumak erraztasunez lortzeko aukera izatea dut helburu. Katalogo digitalean eskuragarri zeuden albumetatik, zehazki Lehen Hezkuntzako ikasleentzat bideratutako albumak hautatu ditut, hots, 6-12 urteko haurrentzat bideratutakoak. Udal liburutegietan gomendatutako eta Lehen Hezkuntzako haurrentzako 92 umorezko album postmoderno eskaintzen dira (2.Eranskina), batzuk euskaraz zein gaztelaniaz eskaintzen direlarik.

Azkenik, hirugarren fasean, Canva tresna digitalaren bitartez, nire proposamena sortu dut, Lehen Hezkuntzako irakasleei zuzendutako Haur Literaturako umorezko album postmodernoen gida elebiduna, alegia. Lehen Hezkuntzako haurrentzako 75 umorezko album postmoderno hautatu eta umoredun mezuak helarazteko erabilitako teknika nagusietan taldekatu ditut. Horretarako, marko teorikoan zehaztutako bilaketa bibliografikoan zein GRETEL ikerketa taldeak, Galtzagorri Elkarteak eta Canal Lector fundazioak album bakoitzari buruz eginiko erreseñetan oinarritu naiz. Horrela, album horietan presente dauden zazpi estrategia subertsibo nagusi hautatu ditut: metafikzioa, zentzugabekeria, ironia, polifonia, gehiegikeria, testuartekotasuna eta kontraesana.

## 3. Lanaren garapena

Hurrengo lerroetan, irakasleentzako irakurketa gidaren xede nagusiak zehazten dira. Hargatik, helburu hauek aintzat harturik, gidaren diseinuaren nondik norakoak zehaztu dira. Gainera, sortutako produktua irakur daiteke, Lehen Hezkuntzako irakasleei zuzendutako Haur Literaturako umorezko album postmodernoen gida, alegia.

### 3.1. Zergatik LHko irakasleentzako umorezko albumen irakurketa gida?

Irakurketak berak irakurtzen ikasten laguntzen duela kontuan izanik eta haurren garapen prozesuan duen garrantzia aintzat hartuz, Lehen Hezkuntzako irakasleek haurrak irakurketara animatzeko aukera dute heziketa literarioaren bitartez (Rivera eta Castillo, 2005). Haatik, liburu asko argitaratzen dira, merkatuaren produkzio-erritmo azkarrak agerian utziz bitartekarien lana ezinbestekoa dela (Fernández de Gamboa, 2018).

Gida honen xedea, beraz, irakasleei ikasgelan landu beharreko irakurgaien aukeraketa erraztea eta hauetako batzuk nola landu proposatzea da. Haur Literaturako umorezko album postmodernoen hautaketa, alegia. Alde batetik, albumak aukeratu ditut irakurketa sustatzeko produktu apropos gisa, haurrei zuzenduriko 32 orrialde inguruko

liburu ez oso luzeak izan ohi direlako (Bosch, 2007). Haietan, orrialde-bikoitzaren inprimaketa da nagusi eta ilustrazioak handiak eta testuak laburrak dira. Beraz, albumak modu argian lagun dezake haurren irakurzaletasuna sustatzen (Sáez, 2016).

